TOLOSAKO
UDALA

| | |
|---|---|
| **GAIA:** | **Tolosako merkataritza eta ostalaritza sektoreetan tokiko ekonomia indarberritzeko laguntzak oinarri arautzaileak eta deialdia** |
| **Esp. zk.:** | **2020D0100020** |
| **Saila:** | **Garapen Ekonomikoa, Turismoa, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren sustapena** |

## OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA /

## BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIAS

| | |
|---|---|
| **Tolosako merkataritza eta ostalaritza sektoreetan tokiko ekonomia indarberritzeko laguntzak.** | **Ayudas para la reactivación de la economía local en los sectores comercial y hostelero de Tolosa.** |
| **1.artikulua.** ***Helburua eta xedea.***<br>Deialdi honen xedea da Tolosako merkataritza eta ostalaritza sektoreetako jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzea, tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz, bi sektore horiek COVID-19ak sortutako krisiaren inpaktuaren eraginei aurre egin diezaieten. | **Artículo 1.** ***Objeto y finalidad.***<br>La finalidad de esta convocatoria es promover y reactivar la actividad local que permita mantener la actividad económica, el empleo y la dimensión competitiva de dichos sectores, para que ambos puedan afrontar las consecuencias derivadas del impacto generado por la crisis producida por la COVID-19. |
| **2. artikulua.** ***Kreditu erabilgarria.***<br>Deialdi honetarako Tolosako Udalak ehun eta hogei mila (120.000,00) euro bideratuko ditu 1100.771.01.430.00 (2020) aurrekontu-partidaren kargura. | **Artículo 2.** ***Crédito disponible*****.**<br>El Ayuntamiento de Tolosa destinará a esta convocatoria ciento veinte mil (120.000,00) euros con cargo a la partida presupuestaria 1100.771.01.430.00 (2020). |
| Deialdi honetarako funtsak datoz Tolosako Udaletik eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak 2020rako egindako deialdi honetatik: *"COVID-19ari aurre egiteko merkataritza eta ostalaritza sektoreetan tokiko ekonomia indarberritzeko programa"* (GAO, 108. zk., 2020/06/10). | Los fondos destinados a esta convocatoria proceden del Ayuntamiento de Tolosa y de la Convocatoria 2020 del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa "programa de reactivación económica local en los sectores comercial y hostelero para hacer frente a la COVID-19" (BOG nº 108, 10/06/2020). |
| **3. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak**<br>Diruz lagundutako jarduerak 2020ko martxoaren 14tik azaroaren 15era artean egingo dira. Halaber, fakturen datak eta ordainketak epealdi horren barruan egingo dira.<br><br>Honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen gastuak: | **Artículo 3.** ***Actividades subvencionables.***<br>Las actividades subvencionadas se desarrollarán entre el 14 de marzo y el 15 de noviembre de 2020. Asimismo, las fechas de las facturas y sus pagos se realizarán dentro de ese periodo.<br><br>Los gastos subvencionables son los siguientes:<br><br>1) Inversiones realizadas para el acondicionamiento de locales para la actividad |

| | |
|---|---|
| 1) Txikizkako merkataritza eta ostalaritza sektoreetako jarduera ekonomikoa prestatzeko lokalak egokitzeko egindako inbertsioak, Covid-19 gaitzari eta segurtasun eta osasun irizpideei/protokoloei aurre egiteko direnak, esate baterako: igeltserotza, iturgintza, elektrizitatea, kristaleria, klimatizazioa, arotzeria eta, oro har, esku hartzea aurrera eramateko izapidetutako obra lizentziaren eskaerari edo erantzukizunpeko adierazpenari edo aurretiko jakinarazpenari erantsitako aurrekontuan jasotako guztiak.<br><br>Erakunde eskatzaileek indarrean dagoen araudia bete behar dute, bai hirigintzari bai arkitekturari buruzkoa, bai eta osasungarritasunari eta higieneari buruzkoa ere.<br><br>Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira halaber, inbertsio horiek egiteko beharrezkoak diren azterlanak. Kasu horretan, azterlanaren kostuen %50a onartuko da diruz lagundu daitekeen gastu bezala, BEZa kanpo eta gehienez ere 750,00 euroko zenbatekoaren mugarekin.<br><br>2) Segurtasun eta osasun irizpideak/ protokoloak betetze aldera, lokalak egokitzeko ekipamendua: lurruneztagailuak, airea berritzeko eta arazteko sistemak, termometro digitalak, gorputzeko tenperatura neurtzeko kamerak, esterilizagailuak, deskontaminatzeko alfonbrak, manparak, e.a.<br><br>3) Bezeroekin eta enpresa hornitzaileekin lan erlazio berriak egokitzearen ondoriozkoak, hala nola: bezeroen fidelizazio sistemak kudeatzeko, instalatzeko eta abian jartzeko softwarra; bezeroarekiko harremanarekin lotura zuzena duen ekipamendu informatikoa; on line saltzeko sistemak; karta digitalen diseinua eta garapena; saltokiaren webgunea gailu mugikorretara egokitzeko aplikazioaren garapena; etxean entregatzeko sistemak abian jartzeko sistemak, e.a.<br><br>Diruz lagundu ahal izateko, proiektuen onartutako gutxieneko inbertsio-zenbatekoa 30 € izango da establezimendu bakoitzeko eta zenbateko horretara iristen ez diren eskaerak ez dira diruz lagunduko.<br><br>Ez dira inolaz ere diruz laguntzekoak izango ez zeharkako zergak (BEZ, EIOZ,…) ez esku hartzea egiteko eta/edo jarduera abian jartzeko | económica en los sectores de comercio minorista y hostelería, destinados a hacer frente a la enfermedad COVID-19 y a los criterios/protocolos de seguridad y salud, tales como albañilería, fontanería, electricidad, cristalería, climatización, carpintería y, en general, todas las recogidas en el presupuesto incorporado a la solicitud de licencia de obra o declaración responsable o comunicación previa tramitadas para llevar a cabo la intervención.<br><br>Las entidades solicitantes deberán cumplir la normativa vigente, tanto urbanística como arquitectónica, así como de salubridad e higiene.<br><br>También tendrán la consideración de gastos subvencionables los estudios necesarios para la realización de dichas inversiones. En este caso, se admitirá como gasto subvencionable el 50% de los costes del estudio, excluido el IVA, con un límite máximo de 750,00 euros.<br><br>2) Equipamiento para el acondicionamiento de locales para el cumplimiento de criterios/protocolos de seguridad y salud: vaporizadores, sistemas de renovación y depuración de aire, termómetros digitales, cámaras de medición de temperatura corporal, esterilizadores, alfombras de descontaminación, mamparas, etc.<br><br>3) Las derivadas de la adaptación de nuevas relaciones de trabajo con clientes y entidades proveedoras, tales como: software de gestión, instalación y puesta en marcha de sistemas de fidelización de clientes; equipamiento informático directamente relacionado con la relación con el cliente; sistemas de venta on line; diseño y desarrollo de cartas digitales; desarrollo de la aplicación de adaptación de la web del comercio a dispositivos móviles; sistemas de entrega a domicilio, etc.<br><br>Para ser subvencionables, el importe mínimo de inversión admitido para los proyectos será de 30 € por establecimiento, y no serán subvencionables las solicitudes que no alcancen dicho importe.<br><br>En ningún caso serán subvencionables los |

| | |
|---|---|
| beharrezkoak diren lizentziak (obra, jarduera…), erantzukizunpeko adierazpenak edo aurretiko komunikazioak izapidetzeko kostua.<br><br>Halaber, kanpo geldituko da hainbat elementuren erosketa, esate baterako, telebistak, telefono terminalak, erakusketa eta probako artikuluak, bai eta gero jendearentzako salgai jar daitezkeenak ere. Era berean, ez da diruz lagunduko elementu suntsigarriak erostea, esate baterako, eskularruak, maskarak, desinfektatzaile biozidak.<br><br>**4. artikulua.** ***Dirulaguntzaren zenbatekoa.***<br>Dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako jarduketaren aurrekontuaren % 100 artekoa izango da, eta diruz lagundu daitekeen gastua, gutxienez 30 eurokoa, eta gehienez ere, mila eta bostehun (1.500) eurokoa izango da eskaera bakoitzeko.<br><br>Onuradun batek establezimendu bat baino gehiago baditu, gehieneko zenbatekoa hirurehun (300) euro handituko da establezimendu gehigarri bakoitzeko, eta gehienez ere bi establezimendu gehigarri lagunduko dira.<br><br>Erabilgarri dagoen kredituarekin iristen ez bada, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki banatuko da baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien artean.<br><br>**5. artikulua. Onuradunak.**<br>Dirulaguntza hauen onuradunak izango dira Tolosan txikizkako merkataritzako edota ostalaritzako establezimenduren bat duten autonomoak eta 30 langile baino gutxiagoko entitateak, beren forma juridikoa edozein dela ere.<br><br>Betiere, entitateak bat etorri behar du oinarri hauen II. Eranskinean zehaztutakoarekin (JESN-Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala). Entitatea JESNko bi epigrafetan edo gehiagotan alta emanda baldin badago, onuraduntzat hartuko da betiere jarduera nagusia diruz lagundu daitezkeen taldeetan badago.<br><br>Salbuespen gisa, laguntza ekonomikoa eskatzeko eskubidea izango dute honako JESNetan altan dauden bestelako zerbitzuetako jarduerak: | impuestos indirectos (IVA, ICIO...) ni las licencias necesarias para una intervención y/o puesta en marcha de una actividad (obra, actividad) o los costes de tramitación de declaraciones responsables o comunicaciones previas.<br><br>Asimismo, queda excluida la adquisición de elementos tales como televisores, terminales telefónicos, artículos de prueba y exposición, así como los que posteriormente puedan ser puestos a la venta al público. Tampoco se subvencionará la compra de elementos fungibles como guantes, mascarillas, desinfectantes biocidas.<br><br>**Artículo 4.** ***Cuantía de la subvención.***<br>La cuantía de la subvención será de hasta el 100% del presupuesto de la actividad presentada; el gasto mínimo subvencionable será de 30 euros y la cuantía máxima de mil quinientos (1.500) euros por solicitud.<br><br>En el caso de que un beneficiario tenga más de un establecimiento, el importe máximo se incrementará en trescientos (300) euros por establecimiento adicional, con un máximo de dos establecimientos adicionales<br><br>Si no llegara con el crédito disponible, el importe de la subvención se repartirá proporcionalmente entre todas las solicitudes que cumplan los requisitos.<br><br>**Artículo 5.** ***Personas*** **beneficiarias**<br>Serán beneficiarios de estas subvenciones los autónomos y las entidades de menos de 30 trabajadores, cualquiera que sea su forma jurídica, que tengan algún establecimiento de comercio minorista y/o hostelería en Tolosa.<br><br>En todo caso, la entidad deberá ajustarse a lo especificado en el Anexo II de estas Bases (CNAE-Clasificación Nacional de Actividades Económicas). En el caso de que la entidad esté dada de alta en dos o más epígrafes del CNAE, se considerará beneficiario siempre que la actividad principal se encuentre dentro de los grupos subvencionables.<br><br>Excepcionalmente, tendrán derecho a solicitar ayuda económica las empresas que se encuentren de alta en los siguientes epígrafes |

| | |
|---|---|
| - 96.01: Ehun eta larru janzkien garbiketa eta ikuzketa.<br><br>- 96.02: Ile apainketa eta beste edertasun tratamendu batzuk.<br><br>**6. artikulua. *Onuradunek bete behar dituzten baldintzak.***<br>Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:<br>1. Establezimendua Tolosako udalerrian izatea.<br>2. Deialdi hau argitaratzen denean, II. Eranskinean jasota dauden JESNko epigrafeetan (Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala) alta emanda egotea. Azken hau Udalak ofizioz egiaztatuko du.<br>3. Egoera hauetakoren batean egotea: 1) Tolosako Udalerriko JEZean (Jarduera Ekonomikoen Zerga) alta emanda egotea, egoitza fiskala edozein dela ere. 2) Estatuko edo probintziako JEZean alta emanda egotea, eta egoitza fiskala Tolosan izatea. Azken hau Udalak ofizioz egiaztatuko du.<br>4. Egunean izatea Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta Tolosako Udalarekiko zerga-betebeharrak. Azken hau Udalak ofizioz egiaztatuko du.<br>5. Entitate bakoitzak 30 €-ko inbertsioa justifikatu beharko du gutxienez, BEZa kanpo.<br>6. Jarduera garatzen den lokalen kasuan, ofizioz egiaztutako da baimena izatea edota jarduera martxan jartzeko aurretiazko komunikazioa egina izatea.<br>Jarduera berria den kasuetan, aurretiazko komunikazioa egin beharko da zuriketa aurkezteko azken egunerako, hau da, 2020ko azaroaren 26rako.<br>7. Lokalak egokitzeko inbertsioen kasuan, ofizioz egiaztatuko da erakunde eskatzaileak nahitaezko obra baimena duela edo, hala badagokio, dagokion obra erantzukizunpeko aitorpena edo aurretiazko jakinarazpena behar bezala izapidetu duela.<br>8. Dirulaguntzak jasotzeko debekurik ez izatea (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan adierazten dira debeku-kausa horiek).<br><br>**7. artikulua. Baztertzeak.**<br>Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira honako hauek:<br>• Tolosako Udalarekin prestazio jarraituko hornidura edo zerbitzuen kontratu publikoak dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak. | del CNAE:<br><br>- 96.01: Lavado y limpieza de prendas textiles y de piel.<br>- 96.02: Peluquería y otros tratamientos de belleza.<br><br>**Artículo 6. *Requisitos de las personas beneficiarias.***<br>Las personas beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:<br>1. Que el establecimiento esté situado en el término municipal de Tolosa.<br>2. Estar dado de alta en el momento de la publicación de esta convocatoria en los epígrafes CNAE (Clasificación Nacional de Actividades Económicas) que figuran en el Anexo II. El Ayuntamiento comprobará esto último de oficio.<br>3. Encontrarse en alguna de las siguientes situaciones: 1) Estar dado de alta en el IAE (Impuesto de Actividades Económicas) del municipio de Tolosa, cualquiera que sea su domicilio fiscal. 2) Estar dado de alta en el IAE estatal o provincial y tener su domicilio fiscal en Tolosa. El Ayuntamiento comprobará esto último de oficio.<br>4. Estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias con la Seguridad Social, Hacienda y Ayuntamiento de Tolosa. El Ayuntamiento comprobará esto último de oficio.<br>5. Cada entidad deberá justificar una inversión mínima de 30 €, IVA excluido.<br>6. En el caso de los locales donde se desarrolle la actividad, se acreditará de oficio la autorización o la previa comunicación de puesta en marcha de la actividad.<br>En el caso de que se trate de una nueva actividad, la comunicación previa se tendrá que realizar para el último día del plazo de justificación, es decir, el día 26 de noviembre de 2020.<br>7. En el caso de inversiones para la adecuación de locales, se comprobará de oficio que la entidad solicitante cuenta con el permiso de obra preceptivo o que, en su caso, ha tramitado correctamente la declaración responsable de obra correspondiente o comunicación previa.<br>8. No estar incurso en ninguna de las causas señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.<br><br>**Artículo 7. *Exclusiones.*** |

| | |
|---|---|
| • Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako jarduerak.<br>• Udal honekiko, Ogasunarekiko edo Gizarte Segurantzarekiko ordainketa-betebeharretan egunean ez dauden zergadunak. Ordainketa egunean dagoela egiaztatuko da ofizioz.<br><br>**8. artikulua. Eskaera aurkezteko modua eta tokia.**<br>Eskabidea establezimenduaren titularrak edo legezko ordezkariak aurkeztu beharko du, Udalaren webgunean (www.tolosa.eus) argitaratuko den eskabide ofizialaren ereduan.<br><br>Salbuespen gisa, eta COVID-19ak eragindako osasun-egoeraren ondorioz osasun-agintariek emandako gomendioak kontuan hartuta, ezartzen da eskatzaileek bitarteko elektronikoen bidez izan behar dutela harremana Tolosako Udalarekin, bat etorrita 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 14.3 artikuluan aurreikusitakoarekin.<br><br>**9. artikulua. Eskaerak egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa**<br>Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:<br><br>1. Deialdirako eskabide-eredu espezifikoa (udalaren webgunean dago erabilgarri).<br>Eskabide-ereduak honako atalak izango ditu:<br>- Baimen klausula, Tolosako Udalari Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eta bestelako betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko adostasuna adieraziz. Era berean, eskatzailearen Jarduera Ekonomikoen Zerga (JEZ) eta jarduera baimena ofizioz egiaztatuko dira. Baimenik eman ezean, ziurtagiri guztiak aurkeztu beharko dira.<br>- Memoria: lokala egokitzeko inbertsioa egin bada, edota bezeroekin eta enpresa hornitzaileekin lan erlazio berriak egokitzeko inbertsioak eta ekipamenduen erosketak egin diren kasuetan, zehaztu beharko da: inbertsioaren helburua eta gauzatutako inbertsioaren deskribapena (Covid-19arekin duen lotura zehatz mehatz adierazi beharko da). | Quedan excluidas de estas ayudas:<br>• Personas físicas o jurídicas con contratos públicos de suministros o servicios de prestación continuada con el Ayuntamiento de Tolosa.<br>• Las actividades recogidas en los artículos 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.<br>• Contribuyentes que no estén al corriente de sus obligaciones de pago con este Ayuntamiento, Hacienda o Seguridad Social. Se comprobará de oficio que se encuentra al corriente de pago.<br><br>**Artículo 8. *Forma y lugar de presentación de la solicitud.***<br>La solicitud deberá presentarse por el/la titular del establecimiento o representante legal en el modelo de solicitud oficial que se publicará en la página web del Ayuntamiento (www.tolosa.eus).<br><br>Excepcionalmente, y atendiendo a las recomendaciones de las autoridades sanitarias derivadas de la situación sanitaria generada por la COVID-19, se establece que las personas solicitantes deberán relacionarse con el Ayuntamiento de Tolosa por medios electrónicos, de conformidad con lo previsto en el artículo 14.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.<br><br>**Artículo 9. *Documentación a presentar para realizar las solicitudes*.**<br>Para realizar la solicitud, la persona interesada deberá presentar la siguiente documentación:<br><br>1. Modelo de solicitud específico para la convocatoria (disponible en la web municipal). Contendrá los siguientes apartados:<br>- Cláusula de autorización, por la que se declara el consentimiento al Ayuntamiento de Tolosa para que compruebe que la persona interesada está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. Si el solicitante no da su consentimiento expreso, deberá aportar ambos certificados. Asimismo, se verificará de oficio el Impuesto de Actividades Económicas (IAE) y la licencia de actividad de la persona solicitante. A falta de consentimiento expreso, se deberán aportar todos los certificados.<br>- Memoria: en los casos en los que se hayan |

| | |
|---|---|
| 2. Eskaera ordezkari batek egin badu, ordezkaritza baimena.<br><br>3. Oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen direla bermatzeko erantzukizunpeko adierazpena (udalaren webgunean dago eskuragarri).<br><br>4. Beste administrazio batzuei xede bererako egindako beste dirulaguntza eskaeren gaineko aitorpena (udalaren webgunean dago eskuragarri).<br><br>5. Banku-ziurtagiria, eskatzailearen kontu korronteko IBAN adierazita (eskatzaileak titularra edo titularkidea izan behar du). Ziurtagiri horren ordez, libretaren kopia edo banku elektronikoko inprimaki bat entrega daiteke, beti ere titularrak eta IBAN zenbakiak agerian egonda.<br><br>6. Identifikazio Fiskaleko Kodearen (IFK) edota NAN dokumentuaren fotokopia.<br><br>7. Kontu zurigarria (udalaren webgunean dago eskuragarri).<br>8. Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko, fakturak eta horien banku-ordainagiriak.<br><br>Interesdun bakoitzeko laguntza-eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da.<br><br>Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran ebazpena eman ondoren.<br><br>28.2 artikuluan xedatzen den moduan, interesdunak hala eskatuz gero eta Tolosako Udalak oinarri hauetan jasotako agiriren bat haren esku egonez gero, ez da dokumenturik aurkeztu beharko.<br><br>Dirulaguntzei buruzko arau erregulatzaileetan eskatzen diren baldintzak zehatz-mehatz | realizado inversiones y compra de equipamientos para adaptar las formas de trabajo a la organización de nuevas relaciones laborales con clientes y entidades proveedoras, indicando: el objeto de la inversión y la descripción de la inversión ejecutada (indicando la relación concreta con la Covid-19).<br><br>2. En caso de que la solicitud la realice un representante deberá presentar autorización de representación.<br><br>3. Declaración responsable de cumplimiento de las condiciones recogidas en las presentes bases (disponible en la web municipal).<br><br>4. Declaración de otras solicitudes de subvención a otras administraciones para el mismo fin (disponible en la web municipal).<br><br>5. Certificación bancaria indicando el IBAN de la cuenta corriente de la persona solicitante. Esta certificación puede ser sustituida por copia de la libreta o imagen de banca electrónica donde figuren los titulares y el IBAN de la cuenta corriente.<br><br>6. Fotocopia del Código de Identificación Fiscal (CIF) o del DNI.<br><br>7. Cuenta justificativa (disponible en la web municipal).<br><br>8. Para la justificación de los gastos subvencionables, las facturas y demás documentos válidos en el tráfico comercial, así como los recibos bancarios de los mismos.<br><br>Solo se podrá presentar una única solicitud de ayuda por cada persona interesada.<br><br>Si el impreso de solicitud, o documentación que lo acompañe, no contuviera datos identificativos, tuviera algún defecto o faltase algún dato, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, se requerirá a la persona solicitante para que, en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución en los términos previstos en el artículo 21.1.<br><br>Tal y como se establece en el artículo 28.2, si la |

betetzen direla hobeto egiaztatzeko, organo izapidegileak aukera izango du edozein unetan beharrezkotzat jotzen duen jatorrizko dokumentazioa edo osagarria eskatzeko.

**10. artikulua. *Eskaerak aurkezteko epea*.**
Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta 2020ko azaroaren 26ra bitarte izango da.

**11. artikulua. *Dirulaguntza emateko prozedura.***
Laguntzak lehiarik gabeko norgehiagokaren prozedura erabiliz emango dira, Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 55. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Emandako laguntza guztiak behin bakarrik esleituko dira, egintza bakar batean, lehiaketa-teknika erabili gabe, izan ere, programa honek helburu du laguntzak ematea eskabideak garaiz eta behar bezala aurkeztu dituzten eta oinarri hauetan onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiei.

Emateari buruzko behin betiko ebazpena Tolosako Udalaren webgunean argitaratuta jakinaraziko da. Halaber, behin betiko ebazpena proposatutako interesdunei jakinaraziko zaie.

**12. artikulua. *“Minimis” araubidea.***
Dekretu honetan arautako dirulaguntzek «minimis» araubidea beteko dute eta egungo Europar Batzordearen 1407/2013 Araudiak, abenduaren 18koak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 107. eta 108. artikuluak aplikatzeari buruzkoak, (2013/12/24ko EBAO) xedatutakoa aplikatuko zaie.

Beraz, onuradunek araubide berean dauden laguntzak ezingo dituzte lortu, jarduneko ekitaldi fiskalean edo aurreko bi ekitaldi fiskaletan zenbatekoa metatu ostean, 200.000 euro gainditzen badira.

**13. artikulua. *Prozedura ordenatu eta bideratzeko organo eskuduna.***
Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza, Azokak eta Enpleguaren sustapenerako Saila izango da prozeduraren instruktorea.

Garapen Ekonomiko, Turismo, Merkataritza,

persona interesada así lo solicita y el Ayuntamiento de Tolosa dispone de alguno de los documentos recogidos en las presentes bases, no será necesaria la presentación de documentación.

Para una mejor comprobación del exacto cumplimiento de los requisitos exigidos en las normas reguladoras de las subvenciones, el órgano tramitador podrá requerir en cualquier momento la documentación original o complementaria que estime necesaria.

**Artículo 10. *Plazo de presentación de solicitudes.***
El plazo de presentación de solicitudes será desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 26 de noviembre de 2020.

**Artículo 11. *Procedimiento de concesión.***
La concesión de las ayudas se realizará por el procedimiento de concurrencia no competitiva, prorrateándose el importe total entre las personas beneficiarias de la subvención, al amparo de lo dispuesto en el artículo 55 del Real Decreto 887/2006 del 21 de julio.

Todas las ayudas concedidas se adjudicarán una sola vez, en un único acto, sin utilizar la técnica concursal, por tratarse de un programa que tiene por objeto la concesión de ayudas a todas las entidades que hayan presentado sus solicitudes en tiempo y forma y cumplan los requisitos exigidos en las presentes bases para ser beneficiarias.
La resolución definitiva sobre la concesión se dará a conocer mediante su publicación en la página web del Ayuntamiento de Tolosa. Asimismo, se notificará la resolución definitiva a las personas interesadas propuestas.

**Artículo 12. *Régimen de "minimis".***
Las subvenciones reguladas en el presente Decreto se regirán por el régimen de "minimis" y les será de aplicación lo dispuesto en el Reglamento 1407/2013 de la actual Comisión Europea, de 18 de diciembre, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE) (DOUE 24/12/2013).

En consecuencia, las personas beneficiarias no podrán obtener ayudas acogidas a este mismo régimen, si el importe acumulado durante el ejercicio fiscal en curso o en los dos ejercicios

| | |
|---|---|
| Azokak eta Enpleguaren sustapenerako Sailak aztertu eta egiaztatuko du aurkeztutako eskaerak eta dokumentazioak ezarritako baldintzak betetzen dituztela.<br><br>**14. artikulua. *Dirulaguntza emateko ebazpena.***<br>Ebazpena Turismo, Merkataritza eta Azoketako zinegotziaren eginkizuna izango da, eta hark erabakiko du tramitatzeko onartu diren eskabideei dirulaguntza ematea, haiek artxibatzea edo ezeztatzea.<br><br>Ebazpenak eman eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.<br><br>Ebazpenak amaiera emango dio bide administratiboari, eta horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik zenbatuta, kontuan izanda aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola lehendik ekintza bera agindu duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Nolanahi ere, ezin izango dira aldi berean bi errekurtsoak aurkeztu, APELn 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta interesdunek egokia ikusten duten beste edozein eskubide erabili ahal izango dute.<br><br>***15. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.***<br>**Onuradunak betebehar hauek ditu:**<br><br>- Organo edo erakunde emailearen aurrean justifikatuko du eskatutako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituela, edo prozeduraren organo izapidegileari egiaztatzeko baimena emango dio.<br>- Organo emaileari jakinaraziko dizkio bestelako laguntzak, dirulaguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko badira. Jakinarazpena ezagutu bezain laster egin beharko da.<br>- Organo emaileari jakinaraziko dio egoeratan edo onuradunak onartutako konpromiso eta betebeharretan edozein aldaketa, dirulaguntza emateko kontuan hartu bada.<br>- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak izango ditu eta Tolosako Udalean epez kanpoko zorrik, zor likidorik eta zor galdagarririk ez da azalduko. | fiscales anteriores supera los 200.000 euros.<br><br>**Artículo 13. *Órgano competente para la ordenación y tramitación del procedimiento*.**<br>El Área de Desarrollo Económico, Turismo, Comercio, Ferias y Fomento del Empleo será el instructor del procedimiento.<br>El Área de Desarrollo Económico, Turismo, Comercio, Ferias y Promoción del Empleo analizará y verificará que la solicitud y documentación presentada cumple con los requisitos establecidos.<br><br>**Artículo 14. *Resolución de concesión de la subvención.***<br>La resolución corresponderá a la concejala de Turismo, Comercio y Ferias, quien acordará la concesión, archivo o revocación de las subvenciones a las solicitudes admitidas a trámite.<br><br>El plazo máximo para dictar y notificar las resoluciones será de seis meses a contar desde el día siguiente a la finalización del plazo de presentación de solicitudes.<br><br>Contra la resolución, que pondrá fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación, teniendo en cuenta que podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el órgano que hubiera ordenado el mismo acto en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación. No obstante, no podrán interponerse simultáneamente ambos recursos en los términos previstos en los artículos 123 y 124 LPAC, y las personas interesadas podrán ejercitar cualquier otro derecho que estimen oportuno.<br><br>**Artículo 15. *Obligaciones de las personas beneficiarias.***<br>Las obligaciones de las personas beneficiarias son las siguientes:<br>- Justificar ante el órgano o entidad concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones exigidos o autorizar su comprobación al órgano tramitador del procedimiento.<br>- Comunicar al órgano concedente la obtención de otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos para la financiación de las actividades subvencionadas. La notificación deberá realizarse tan pronto como se tenga conocimiento.<br>- Comunicar al órgano concedente cualquier |

- Organo emaileak egin ditzakeen egiaztapen-jardueratan parte hartuko du eta bere jarrera berdina izango da kontrol-organo eskudunek, bai naziokoek, bai erkidegokoek, egin ditzaketen beste egiaztapen eta kontrol finantzario batzuekin. Hala, eskatzen zaion informazio guztia helaraziko du.
- Arau hauek eta DLOk aurrez ikusitako ustezkoetan, jasotzen dituen funtsak itzuli beharko ditu.
- Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzeko agiriak, agiri elektronikoak barne, gordeko ditu, egiaztapen eta kontrol-jarduerapean badaude.

Orokorrean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14.artikuluan xedatutako beste edozein betebehar.

***16. artikulua. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna.***

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, betiere guztiak batuta, diruz laguntzen diren gastuen kostua gainditzen ez bada.

Hemen arautzen diren dirulaguntzen zenbatekoak ez du inola ere, isolatuta edo beste administrazio publiko ala erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntza edo laguntza batzuekin batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko.

Erakunde onuradunak arau honetan erregulatutako xede berdinerako dirulaguntza lortu eta/edo eskatzen badu, modu frogagarrian jakinaraziko dio Udalari.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero eta, nolanahi ere, beste administrazio edo erakunde publiko ala pribatu batzuek, naziokoek edo nazioartekoek, emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortuz gero, emate-ebazpena alda daiteke.

**17. artikulua. *Ikuskatzea eta ez-betetzeak.***

